



## SARRERA-AURKEZPENA

Hiru ekintzaile gara eta ideia ona iruditu zitzaigun **kargadore eramangarri** bat ekoiztea, **eguzki naturalaren bitartez** kargatzen den kargadorea.

Gure helburu nagusia **ingurunea kaltetu gabe** produktu bat ekoiztea zen, horrez gain, guretzat **erabilgarria** izatea. Hori guztia kontuan hartuz, bikaina iruditu zitzaigun gure ideia aurrera eramatea.

Proiektua kargadore **eramangarri** bat egitea da, eguzki plaka batekin energia hartzen duena.

Oso erabilgarria da eta gainera, naturarentzat onuragarria. Elektrizitatea erabili beharrean, eguzki naturalaren bidez kargatuko delako.

Ingurunea kontuan izatea ezinbestekoa iruditu zaigu, gaur egun, hainbat arazo airean jarraitzen dute eta hori aldatzeko ordua iritsi dela uste dugu. Hori dela eta, pixka bat laguntzeko eta ingurunea ez kutsatzeko produktu hau egokia dela iruditu zitzaigun. Gaur egun, kontuan hartu beharreko zerbait da gure ingurunea eta natura, egoera gero eta txarragoa delako eta herritarrek gero eta gehiago jabetzen ari dira behar horretaz.

Kargadore hau ekoizteak onura dakar ingurunearentzako, eguzkiaren bidez lortzen dugulako bateria, beharrezkoa denean.

